



SAN TELMO ZURE KASA

HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERA

PISTA JOKOA

URGULLEN MAGALEAN erakusketa ezagutzen

ZER DA?

“Urgullen magalean” erakusketaz disfrutatzeko gonbita luzatzen dizugu. Erakusketak dituen sei aretoen zeharreko ibilbidean Donostia hiriaren historia ezagutu dezakegu, beti ere, Urgull mendia bidelagun dugula.

- Areto hauetan murgiltzeko pista-jokoa planteatuko dizugu. Honela, bakoitzean irudikapenaren xehetasun batetan arreta jarri beharko duzu eta zein irudiri dagokion topatu.
- Detailea topatuz gero, osotasuna ikusi ahal izango duzu.
- Adi joan zaitez, pixkanaka-pixkanaka, kasu bakoitzean detaileak topatzen.
- Grabatu bakoitzaren detailea azken orrian duzu.

Baina hasi baino lehen...

ZERGATIK URGULL IZENA?

Urgull mendia betidanik egon da Donostia hiriarekin erlazionatua. Jada XI. mendean hiria sortu zenean, Frantziatik etorritako Gaskoiek mendiari izen hori jarri zioten. Urgull mendia “Hércules” hitzetik dator, antza, hiria beti itsasotik babestu duen heinean izen hori jarri zioten heroi indartsu erromatarraren isla bezala.

ERAKUSKETAN...

Topatu itzazu zein grabatuenak diren xehetasun hauek. Aretoz-areto joango gara detaile bakoitza dagokion grabatuarekin identifikatzeko.

1. pista: Lehenengo irudikapenak

Hauxe da ezagutzen dugun Donostia hiriaren lehen irudikapena. Orduan hiri gotortua izan zen. Asko aldatu da, bai, baina oraindik badira elementu batzuk mantentzen direnak nahiz eta ezberdinak ikusi. Hemen denak nahasita daude, jakingo zenuke ordenatzen?

Motako gaztelua, San Bixente Eliza, harresiak, hondartzako ontziola, Kontzejuko dorrea, Kontxako hondartza.

Desagertuak

Mantendu direnak



Grabatuaren ezkerraldean norbait ageri da zuhaitza bati lotua. Badakizu nor den?

Hiriari izena ematen dion soldadu erromatarra, bere fede kristaurengatik martirizatuta izan zena.


2. pista: Bidaia erromantikoa

Bidai-liburuak aspaldi sortu ziren XIX. mendean eta bidaiarien kontakizunak eta ilustrazioak (grabatuak) biltzen zituzten. Bidaiari hauetako asko atzerritarrak ziren eta gure lurraldeari buruzko informazioa utzi ziguten, hainbat gaien inguruan: paisaiak, monumentuak, bertako jendea nolakoa zen eta nola janzten zen...

Pista: Irudi hau ez duzu hormetan topatuko.

Bidaia egiten duzunean, nola biltzen dituzu oroimenak:

Orain imaginatu bidaiaria zarela eta Donostiara iristen zarela. Nola marraztuko zenuke gaur egungo hiria (erainkin esanguratsuenak, gehien gustatzen zaizkizun txokoak...),



3. pista: Gerra-garaiak

Donostia beti izan da hiri militarra eta gotortua kanpoko erasoetatik babesteko. 1813. urteko abuztuaren 31n hiria erabat suntsitu zen sutearen eraginez. Topa ezazu gertakari horrekin erlazionatutako irudia.

Orain arreta jar ezazu grabatuan osotasunean. Ikusiko duzu soldadu batzuk gorriz eta txuriz jantzita daudela eta besteak ordea, urdinez eta txuriz. Hauek izan ziren Donostia erasotu zutenak. Jakingo zenuke zeintzuk ziren identifikatzen?

Pista bat emango dizugu: soldadu frantsesak, inglesak edo portugesak izan daitezke baina frantsesak ziren hiriaren barruan bizi zirenak.

4. pista: Hiria hazten

Hiriko harresia bota eta gero, hiria zabaldu egin zen. Topa ezazu aretoan zabalkunde hori azaltzen duen plano. Ikusi ematen dizugun detailea.

Jakingo al zenuke plano honetan San Telmo Museoa kokatzen?

5. pista: Eguneroko bizitza

Donostiarrek euren eguneroko bizitzan jarduera asko burutzen zituzten baina beti zegoen aisialdirako tartea. Topa ezazu xehetasun honi dagokion irudia.

Irudi honen azken planoan arreta jartzen baduzu, asmatuko al zenuke zein hondartzetan dauden? Aukeratu bietako bat: Ondarreta edo Kontxan.

6. pista: Udaldia

Donostia turismorako hiria bihurtu zen. Areto honetan bada hirian turismoa egiteko azaltzen diren hainbat proposamen. Topatu ezazu xehetasun honetan azaltzen dena. Hiriko zein leku azaltzen da? _____.

Orai arreta jar ezazu marrazkian. Hondartzako elementu ezberdinak azaltzen dira. Baina ez dira egungo ez tolidorik ez eta sonbrilarik azaltzen. Zer da horren ordeaz azaltzen dena?

PISTAK

1	2
	
3	4
	
5	6
	

Erantzunak:1/Desagertutakoak: gaztelua, harresiak, hondartzako ontziola eta Kontzejuko dorrea. Mantendutakoak: San Bizente eliza eta Kontxako hondartza. 3/Inglesak eta portugesak, 5/Ondarretan,6/Txabolak (etxetxo modukoak).